



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez- Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/08/12
Ordua: 14.00 – 14.30.
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)
JOSE MARÍA ALBERDI GORROCHATEGUI jn. (BILDU)
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Jose Maria Alberdi Zinegotzi jaunaren esku hartzea.
- 2.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea.
- 3.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.
- 4.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientea, hala badagokio, esleitzea.
- 5.-Erreguak eta Galderak.



Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

1.- Jose Maria Alberdi Zinegotzi jaunaren esku hartzea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta Jose María Alberdi Gorrochategui jaunak bere kredentziala aurkeztu duela eta Ondare Aitorpena eta Bateriaezintasun aitorpena bertan aurkeztu duela esan du.

Ondoren, Alkatearen partetik, legeak ahala behartuta, 707/79 Erret Dekretuak Apirilaren 5-ekoak, agintzen duenarekin bat eta LOREG-eko 108 artikulua adierazten duenarekin bat, hautatutako zinegotziari juramentua edo hitza hartu dio, eta ondorengo formula erabili da:

“ZURE SENEZ ETA OHOREZ ZIN EGITEN AL DUZU EDO HITZA EMATEN AL DUZU ZINEGOTZI KARGUAREN BETEBEHARRAK ZINTZO BETEKO DITUZULA, ERREGEAREKIN LEIAL, ETA KONSTITUZIOA ESTATUAREN FUNTSEZKO ARAUTZAT HARTUTA BETEKO ETA BETEARAZIKO DUZULA? “

Paul Baños Onaindia jaunak hurrengo hurrenkeran hurrengo promesa egin zuen: Bai.

Alkate jaunak hitza hartu du eta korporazio osoaren izenean ongi etorri ematen dio eta adierazi dio eskatzen dion bakarra herriaren alde lan egitea dela.

2.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea.(2013/07/04 eta 2013/08/01)

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek akten testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, aktak bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi dira.

3.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Zenbakia	Gaia
88	EHEG 241/13 sententzia betearaztea.
89	Langile laborekin negoziazioak hastea eta hitzarmenaren indarraldiaren luzapena
90	Obra kontratua esleitzea.
91	Joseba Beranoagirre jaunak jarritako birjartze errekurtsioa ez onartzea.
92	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
93	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
94	Kirola sustatzeko diru laguntza ematea.
95	Kirola sustatzeko diru laguntza ematea.
95-a	Behin behineko idazkaria izendatzea titularra oportetan egoteagatik.
96	Padroitik baja emateko espedienteari hasiera ematea.
97	Gastu onarpena.
98	Gastu onarpena.
99	Ume jaiotzarengatik diru laguntza ematea.
100	Aurrekontu aldaketa: kreditu aldaketa.
101	Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena
102	Datu Pertsonalak babesteko fitxeroa sortzea.
103	Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatzeko ekintza egingo den konpromisoa.
104	88 zk. Dekretuaren akats zuzenketa
105	Udal materiala erabiltzeko baimena.

4.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientea, hala badagokio, esleitzea.

2013ko uztailaren 4an Udal Batzak akordio bidez onartu zuen Garauntza hiri lur ez kontsolidatuan babes erregimeneko etxebizitzak, garajea keta trastelekuak egiteko exekuzio proiektua idazteko kontratua esleitzeko espediente, administrazio-oinarrien plegu partikularrak eta Baldintza Teknikoen agiria, publizitate gabeko prozedura bidezko kontratazioa.

2013ko uztailaren 30ean Kontratazio Mahaia eratu zen eta honek balorazio ezaugarriak kontutan izanik esandako kontratuaren esleipena PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO-ren alde proposatu zuen.

2013ko abuztuaren 1ean Udal Batzak lizitatzailleak sailkatu zituen eta ekonomikoki hobea zen eskaintzaren lizitatzailari ogasun eta gizarte segurantzarekin betebeharrak eguneratuta dituela frogatzen duten dokumentuak aurkezteko eskatu zitzaion eta behin betiko bermea jartzeko, baita nolako baliabideak dedikatu edo atxikituko dituen kontratua burutzeko.

2013ko abuztuaren 6an, PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO lizitatzailleak 3.700,00 Euroko behin betiko bermea jarri zuen eta eskatutako beste justifikatu beharreko dokumentuak.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta eta ados berarekin, Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratzaileak, bere 151.4 artikuluan eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legearen Bigarren xedapen gehigarrian dioenaren arabera, Udal Batzak, etorri direnek, aho batez onartu dute:

Lehena: Espedientearen agertzen den motibazioaren arabera PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO-ri Garauntza hiri lur ez kontsolidatuan babes erregimeneko etxebizitzak, garajea keta trastelekuak egiteko exekuzio proiektua idazteko kontratua esleitzea honako zenbateko honetan; 89.540€, € BEZa barne.

Bigarrena: PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO-ri, kontratu honen adjudikaziodun denari akordio hau jakinaraztea eta Izurtzako Udaletxera deitzea kontratua sinatzeko.

Ebazpen honen aurka agertzeko bi aukera daude txandaka egiteko: Izurtzako Udaleko Udalbatzaren aurka aukerazko birjartzea egitea jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, gehienez. Guzti hau Ohiko Prozedura Administratibo eta Administrazio Publikoko Zuzenbide Erregimeneko azaroaren 26ko 1992/30 Legeko 116 eta 117 artikuluen arabera: Bigarren aukera Bilboko Auzietako Epaitegian auzietako helegitea jartzea jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean. Guzti hau Auzietako Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 1998/29 Legeko 46 artikuluen arabera. Aukerazko birjartzea egitea erabakiko balitz ez izango litzateke auzietako helegitea jarri lehena ebatzi arte edo aintzat hartuko ez balitz. Dena dela nahi dutenek euren eskubideen arabera komenigarrien iruditzen zaizkien beste helegite batzuk ere aurkeztu ahal izango dituzte.


5.-Erreguak eta Galderak.

Zarrabeitia Asueta jaunak hitza hartu du eta Jon Otady jaunak egiten ari den obrari buruz galdetu egin du. Gustatuko litzaioke udal arkitektoak hura fiskaliza dezala eta dauzkan lizentziei egokitzen den begira dezala.

Alkate jaunak hitza hartu du eta esan du orain arkitektoa oporretan dagoela baina etorri bezain laster esango dio.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria



O. E.
Alkatea

